


## Uztaileko azken asteburuan 177.000 ibilgailu igaroko dira Irungo ordainlekutik



### ***Irungo eta Zarauzko ordainlekuetako bide guztiak prest dira egon daitezkeen auto-ilarak murrizteko***

Bidegi, AP-8 eta AP-1 autobideak kudeatzeaz arduratzen den foru agentziak, Irungo eta Zarauzko ordainlekuetako bide guztiak zabalik izango ditu, uztaileko azken asteburu honetan azpiegitura horietan trafiko gehiago izango dela aurreikusita. Gogoratu behar da aurten berriro aktibatu dela Espainia eta Maroko arteko itsasartea igarotzeko operazioa, Covidagatik bi urtez etenda egon ondoren.


Kalkuluen arabera, uztailaren 29an, ostirala, eta 31, igandea, bitartean, 177.000 ibilgailu igaroko dira Irungo ordainlekutik, gehienak Donostiarako noranzkoan. 119.000 Behobiatik etorriko dira Donostiarako noranzkoan eta beste 58.000 Hendaiarako noranzkoan. Trafiko handieneko eguna uztailaren 30a izango da, larunbata. Egun horretan 65.000 ibilgailu mugitzea espero da, bi noranzkoetan. Zarauzko ordainlekuan ere mugimendu handia erregistratuko da, 187.000 joan-etorriekin.

Zenbaki horiek ikusita, Irungo ordainlekuko 14 bideak eta Zarauzko 17 bideak irekita mantentzeko bitartekoak indartzen ari da Bidegi. Bideetan pertsonak egongo dira pausoa arintzeko, edozein gorabehera berehala konpontzeko eta, ahal den neurrian, sor daitezkeen itxaronaldiak saihesteko. Abiatu, Via T, kreditu- eta zordunketa-txartelak, telefonoak eta erloju adimendu gailuen bidez edo eskudirutan ordaintzeko prestatuta daude bideak.

Foru agentziak gogorarazi du joan etorrian eragina izan dezakeela Biriatuan egin daitezkeen segurtasun kontrolen ondorioz eta gomendatzen du eskura izatea nortasun-txartela edo pasaporte, hala eskatuz gero, eta jakinaren gainean egotea Eusko Jaurlaritzaren Trafikoaren web-orrian ([www.trafikoa.eus](http://www.trafikoa.eus)), Twitterren ([www.twitter.com/trafikoejgv](http://www.twitter.com/trafikoejgv)) eta 011 telefonoan.

Zarautz, 2018/07/27

## Se prevé que 177.000 vehículos pasen por el peaje de Irun el último fin de semana de julio



### ***Todas las vías de los peajes de Irun y Zarautz estarán habilitadas para minimizar las posibles retenciones***

Bidegi, la agencia foral encargada de gestionar la AP-8 y la AP-1 habilitará todas las vías de los peajes troncales de Irun y Zarautz en previsión del aumento de tráfico que se registrará en las dos autopistas este último fin de semana de julio. Hay que recordar que este año se ha vuelto a activar entre España y Marruecos la operación paso del estrecho tras dos años interrumpidos por el Covid.

Según las estimaciones que se barajan, dese el viernes 29 y hasta el domingo 31 de julio, el peaje de Irún registrará el paso de 177.000 vehículos, la mayoría en dirección Donostia. 119.000 llegarán provenientes de Behobia dirección Donostia-San Sebastián y 58.000 circularán en sentido Hendaia. El día de mayor tráfico será el sábado 30 de julio. Ese día se espera un movimiento de 65.000 vehículos en ambos sentidos. También el peaje de Zarautz registrará un movimiento elevado que puede alcanzar los 187.000 tránsitos.

A la vista de estos números, Bidegi viene reforzando el dispositivo para mantener abiertas las 14 vías del peaje de Irún y las 17 de Zarautz. Las vías contarán con personal para agilizar el paso, resolver al momento cualquier eventualidad y evitar, en la medida de lo posible, los tiempos de espera que se puedan generar. Los pasos están habilitados para aceptar el pago mediante el dispositivo Abiatu, Via T, tarjetas de crédito y débito, teléfonos y relojes inteligentes o en metálico.

La agencia foral recuerda que el flujo puede verse afectado por posibles controles de seguridad en Biriattou y recomienda tener a mano la tarjeta de identidad o el pasaporte en caso de ser requeridos y estar informados en la página web de Tráfico del Gobierno Vasco [www.trafikoa.eus](http://www.trafikoa.eus), en twitter, [www.twitter.com/trafikoaiejgv](https://www.twitter.com/trafikoaiejgv), y en el teléfono 011.